

ANIMALIAK EDUKI ETA BABESTEARI, ETA ARRISKUTSUAK IZAN DAITEZKEEN ANIMALIEN ERREGIMEN JURIDIKOARI BURUZKO UDAL ORDENANTZA

ZIOEN ADIERAZPENA

Gure inguruko gizarteek bilakaera ekonomiko, sozial eta kultural handia izan dute. Horrekin batera, haziz joan da izaki bizidunen munduarekin adeitsu jokatzeko sentimendua, eta erakundeek ere bat egin dute joera horrekin. Hala islatzen dute Europar Batasunak emandako zenbait zuzentarauk, eta Estatuko nahiz Euskal Autonomia Erkidego legegileek emandako zenbait legek ere.

Horrela, bada, Eusko Legebiltzarrak animalien babesari buruz urriaren 29an emandako 6/1993 Legeak, gizakion eta animalien arteko elkarbizitza arautzeko gutxieneko marko juridikoa ezarri zuen. Lege horretan bat egiten dute osasun publikoak eta animalianganako errespetu eta babesak, interes orokorrek bat egiten duen oreka baten barruan.

Aipatutako legea argitaratu eta indarrean sartu zenetik, ordea, gizartean nabarmen hazi da, kualitatiboki, animalien eskubideen aldeko kontzientzia, eta behar bezalako elkarbizitza arautzeko markoaren aldeko aldarria. Beste alde batetik, gai hori arautzeko prozesua ere eman da. Horren adibide dugu abenduaren 23ko 50/1999 Legea, arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeari buruzko araubide juridikoari buruzkoa, zeinak erregimen juridiko zorrotza ezarri baitzuen, ikusirik mota horretako animaliak edukitzeak gizartean alarma pizten zuela.

50/1993 Legea, ordea, ez zen garatu, eta, beraz, autonomia erkidegoak arau espezifiko bat onetsi zuen: apirilaren 4 ko 66/2000 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzko xedapenak jasotzen dituena. Hala eta guztiz, arau horren indarraldia kolokan geratu zen martxoaren 22ko 287/2002 Errege Dekretua argitaratu zenean. Izan ere, Dekretu horrek abenduaren 23ko 50/1999 Legea garatu, eta haren aplikazio-eremua zehatz-mehatz mugatu zuen (neurri handi batean, oinarritzkoa).

Sortutako segurtasun juridiko falta gainditu, eta arau-marko egonkorra finkatzeko, ekainaren 1eko 101/2004 Dekretua argitaratu zen, Euskal Herrian txakurrak edukitzeari buruzkoa. Dekretu horrek aurreko araudia bategin zuen.

Ordenantza honek, beraz, goian adierazitako prozesu guztia jaso, eta eguneratu egiten du. Horrekin batera, udal-jarduerari egokitzen zaio, eta, horren bidez, tresna erabilgarri eta eraginkorrak ematen ditu, animaliak edukitzeari lotutako jarduerak eremuak arautu, kontrolatu eta eremu horietan esku hartzeko, gizakion eta animalien arteko elkarbizitza arautzeko eta alde guztien errespetua eta segurtasuna bermatzeko.

Hartara, Basauriko Udalak, hori gogoan, eztabaida-prozesua eraman du aurrera, gizakion eta etxe-abereen arteko elkarbizitza hobetzeko helburuarekin. Ordenantza honek, eztabaida-prozesu horren ondorioak jasotzen ditu.

I. TITULUA

XEDEA, APLIKAZIO EREMUA ETA DEFINIZIOAK

1. artikulua.- Xedea

Ordenantza honen xedea da Basauriko udalerrian dauden animaliak babesteko, edukitzeko eta saltzeko arauak finkatzea. Xede horretarako, udalerrian erroldatuta dauden eta ez dauden animaliak, eta bertan erregistratuta daudenak eta ez daudenak hartuko dira kontuan, jabeen edota edukitzaileen bizilekua edozein dela ere. Finean, animalia horien guztien eta gizakion arteko elkarbizitza harmonizatu egingo da ingurumen-osasunarekin, lasaitasunarekin, eta gizakion zein ondasunen segurtasunarekin.

Gauzak horrela, animaliek jaso beharreko gutxieneko arreta ezartzen du Ordenantza honek, tratuari, higieneari, zaintzari, babesari eta garraioari dagokionez. Era berean, animaliak establezimendu espezializatuetan izateko, osasun-arreta jasotzeko eta merkaturatzeko arauak finkatzen ditu.

Beste alde batetik, arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeari buruzko erregimen juridikoa zehazten du Ordenantza honek, bereziki txakurrei dagokienez.

2. artikulua.- Definizioak

Ordenantza hau aplikatzeari dagokionez, definizio hauek ezartzen dira:

- Etxe-abereak dira bizirauteko gizakion beharra dutenak.
- Etxekotutako animaliak dira basati eta libre jaio arren, gizakia ikustera eta harekin egotera ohituta daudenak. Hauek ere, gizakiaren beharra dute bizirauteko.
- Gatibu dauden animalia basatiak dira basati jaio arren, gatibu bizi eta etxekotzeko hezten ez direnak.

Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak izango dira:

- Etxe-abere guztiak, izan etxekotutako animalia eta zein animalia basati, haien oldarkortasun-maila edozein dela ere, baldin eta gizakiei edota beste animaliei heriotza edo lesioak eragiteko gaitasuna badute, edota gauzei kalteak eragin ahal badizkiete.

- Udal organo eskumendunek arriskutsutzat katalogatutako txakurrak. Sailkapen hori irizpide objektiboen arabera eginda egongo da: txakurra arraza-tipologia jakin batekoa izatea; oldarkortasuna erakustea; masailezurraren neurria edota indarra; partikularrek jarritako salaketak ikusita, animalia arriskutsua dela ondorioztatzea; edota txakurrak gizakioi edota gauzei kalteak eragin ahal dizkiola agerian uzten duen beste edozein inguruabar.

- Honako hauek arriskutsuak izan daitezkeela joko da, edozein kasutan: erasorako eta defentsarako trebatuak izan diren txakurrak; ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuaren I. eta II. Eranskinetan arriskutsu gisa katalogatutakoak; eta Dekretu horren 10.1 c) artikulua arabera, izaera hori aitortzen zaienak.

3. artikulua.- Bazter utzitakoak

Ordenantza honen aplikazio-eremutik at geratuko dira, eta berezko araudi espezifikoa menpe geratu, jarraian adierazitako hauek:

- a) Ehiza.
- b) Arrantza.
- c) Basoko fauna bere natura-ingurunean babestea eta kontserbatzea.
- d) Zezenak.
- e) Saiakeretan eta bestelako xede zientifikoetan animaliak erabiltzea.

II. TITULUA ANIMALIAK EDUKITZEARI BURUZKO ERREGIMEN JURIDIKOA

I. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

4. artikulua.- Betebeharrak

1.- Animalia bat daukanak bermatu beharko du hura osasun- eta higienebaldintza egokietan dagoela; bizitoki egokia eman beharko dio; jaten eta edaten eman beharko dio; albaitariarengana eraman beharko du; ariketa fisikoa egiteko aukera eman beharko dio; eta haren beharrian fisiologiko eta etiologikoek eskatutako arreta eman beharko dio, espeziearen eta arrazaren arabera.

2. - Bereziki, gutxieneko baldintza hauek ezartzen dira, animaliak mantentzeari dagokionez:

- a) Edateko ura eta behar besteko elikadura orekatua ematea, nutrizio- eta osasun-maila onak mantentzeko.
- b) Espazio, aireztatze, hezetasun, tenperatura, argi eta aterpe-baldintza egokiak betetzen dituen tokia izatea, animaliak sufrimendurik pairatu ez dezan eta bere beharrianak ase ditzan.

- c) Alojementuak garbi, desinfektatuta eta intsekturik gabe edukitzea.
- d) Ibilgailuak ezin dira ohiko edota noizean behingo alojamentu gisa erabili. Noizean behingotzat joko da ibilgailuan gau bi baino gehiago lo egitea.
- e) Ibilgailuetan animaliak badaude, ahal dela, ibilgailu horiek itzalean aparkatuta egon beharko dute, eta aireztatzea bermatu beharko dute une oro.

3.- Jabeak edo edukitzaileak uste badu animaliak gaixotasun kutsagarriren bat izan dezakeela, bere al baitariari horren berri emango dio. Al baitariak, bere aldetik, zoonosia edota derrigor aitortu beharreko beste gaitz bat delako susmoa badu, edota hala dela egiaztatzen badu, jakinarazi egin beharko dio agintaritzza eskumendunari.

4.- Al baitariak egiaztatu badu animalia batek, pertsonak edota beste animaliak kutsatu ditzakeen gaixotasuna duela, eta animalia hori hil egin behar dela ondorioztatzen badu, hala egiteko eutanasia-sistema baimendua erabili beharko du, eta hori guztia jabearen kontura izango da.

5. artikulua.- Animaliak edukitzeko baldintzak

1.- Animalia jabea izango da hark eragindako kalte edota eragozpenen erantzulea, Kode Zibilaren 1905. artikuluan xedatutakoaren arabera. Txakurren jabeek, animalia arraza edozein izanda ere, erantzukizun zibileko aseguru kontratatu beharko dute, txakurrek hirugarrenei eragin liezazkieketen kalte eta eragozpenen erantzuteko. Euskal Autonomia Erkidegoak ezarriko du aseguru horren gutxieneko zenbatekoa.

2.- Animalia jabeak beharrezko neurriak hartu beharko ditu, gorotzak bide eta eremu publikoetatik (parkeak, lorategiak, berdeguneak, bideen banalerroak, landa-magalak, belardiak eta antzekoak) jasotzeko.

3.- Animaliak daramatzatenei dagokie aurreko ataletan xedatutakoa betetzea, eta, zeregin horietarako, horretarako egokitutako instalazioetara eraman beharko dituzte animaliak, edota, bestela, galtzadaren zintarrira, estolda-zulotik ahalik eta gertuen.

4.- Txakurrak kaka egingo balu espaloian edo beste edozein tokitan, hura daraman pertsonak, erabilitako eremua garbitu beharko du: gorotzak plastikozko poltsa itxi batean jaso, eta bide publikoan dauden zakarrontzietara botako ditu. Animalia jabea izango da erantzule subsidiarioa, dagozkion zehapenena ere bai. Udal agintaritzak txakurraren jabearengana edota unean-unean txakurra daramanarengana jo ahal izango du, gorotzak jaso ditzan. Era berean, debekatuta dago etxe-abereek txiza eta kaka egitea haurren parkeetan.

6. artikulua.- Etxe-abereak eta etxekotutako abereak. Horiek edukitzeko mugak

1.- Oro har, baimena egongo da etxebizitza partikularretan etxe-abereak eta etxekotutako abereak izateko, auzokideei eragozpen objektiborik eragiten ez badiete.

Udal agintaritza eskumendunak mugatu ahal izango du gehienez eduki daitezkeen animalien kopurua, zenbait baldintzaren arabera: ostatu ematea, instalazioen egokitasuna, eta osasun- zein higiene-baldintzak. Horrez gain, agintaritza eskumendunak egiaztatu beharko du ez dagoela arrisku edo eragozpen objektiborik herritarrentzat nahiz beste edonorentzat, ez eta animalia-erentzat edo animalientzat ere.

2.- Etxebizitzan eraikin kolektibo batean, etxebizitza batean txakur bi baino gehiago edukitzeak auzokideei eragozpenak sortzen dizkiela joko da, jabeak kontrakorik frogatzen ez badu. Salaketarik badago, udal administrazioak espedientea izapidetuko du, etxebizitzan edota lokalean eduki daitezkeen txakurren kopurua mugatzeko.

3.- Debekatuta dago animaliak estabulatuta izatea balkoietan, garajeetan, pabilioietan, sotoetan, lonjetan, teilatu lauetan, lorategietan edota bestelako lokal edota hiri-lurzatitan.

4.- Era berean, debekatuta dago etxe-abereak estabulatuta edo erdi estabulatuta izatea parkeetan, lorategi publikoetan edota hiri-lurretan.

5.- Debekatuta dago edozein espezie-tako animalia, eta, bereziki, arriskutsuak izan daitezkeen animaliak, animalia basatiak, kaltegarriak edota ankerrak, aske uztea kanpoaldean, jendea joaten den lekuetan edota jendeari zabalik dauden lokaletan. Izan ere, egon badaude animalia horiek aske ibili ahal izateko baldintza egokiak betetzen dituzten gunek, eremu edota parke zoologikoak.

6.- Udal agintaritzak interesdunari errekerimendua egin ahal izango dio, animaliak zein baldintzatan dituen azaltzeko eta dagozkion agiriak entregatzeko. Era berean, eskatu ahal izango dio animalia bere esku jartzeko, lege xedatutako patua izan dezan: jabetzan hartzea, hirugarren bati lagatzea edota hiltzea.

7. artikulua- Animaliak abandonatzea

1.- Animalia bat abandonatuta dagoela joko da, baldin eta haren jatorria edo jabea nor den jasotzen duen identifikaziorik ez badarama, eta animalia bakarrik badago. Era berean, abandonatutako animaliatzat hartuko da identifikazioa eramanda ere, bakarrik dabilena, eta inork ez badu salatu galdu egin dela.

2.- Ez dira abandonatutako animaliatzat hartuko identifikatuta egon, eta euren jabeen ondoan doazen txakurrak, sokaz edota katez lotuta ez badoaz ere.

8. artikulua.- Abandonatutako animaliekin jarraitu beharreko prozedura

1.- Udalak jaso egingo ditu, berezko ala hitzartutako zerbitzu bidez, abandonatuak izan diren animaliak, edota, identifikatuta egon arren, jabeen kontrolik gabe aske dabiltzanak. Animalia horiek harrapatzeko eta garraiatzeko baliabideek higiene- eta osasun-baldintza egokiak bete beharko dituzte, eta animaliei ez diete eragingo behar ez den sufrimendurik.

2.- Identifikatu gabeko animaliak hogeita hamar egun naturalez atxikiko dira, gutxienez. Epe horretan zehar, jabearen esku egongo da animalia; berau berreskuratzeko, ordea, jabea dela egiaztatu beharko du, eta atxikitzealdian zehar eragindako mantentze- eta egoitza-gastuak ordaindu beharko ditu. Epea igarota inork ez badu animalia erreklamatu, aukera egongo da berau jabetzan hartzeko, hirugarren bati lagatzeko, edota hiltzeko. Aipatutako epea behar beste laburtuko da, baldin eta animalia osasun-baldintzek, arriskugarritasunak edota pairatzen duen sufrimenduak hala agintzen badute, eta, betiere, zerbitzuko albaitariaren irizpideari jarraituta eta udal-teknikarien baimenarekin.

3.- Animaliak identifikazioa badauka, jabeari jakinarazi egingo zaio animalia jaso edota atxiki egin dutela. Une horretatik aurrera, jabeak zazpi egun naturaleko epea izango du animalia berreskuratzeko. Hori bai: animalia bereganatzeko, harrerazentroan egotetik eratorritako gastuak ordaindu beharko ditu. Epea igaro bada jabeak animalia berreskuratu gabe, aurreko atalean adierazitako patua izango du animalia horrek.

4.- Alkatetzak, bestalde, animaliak giltzapetzeko edo isolatzeko agindua emango du, baldin eta kutsakorrak diren gaixotasunen sintomak diagnostikatu edota antzematen badizkiete (bai gizakioi, bai beste animalia batzuei kalte egin ahal dizkietenak). Horren xedea izango da animalioi sendatzeko tratamendua ematea, edota, beharrezko balitz, hiltzea. Gzakiak eraso dituzten animaliak ere giltzapetu edo isolatzeko agindua emango du Alkatetzak. Animalioi behatuak izango dira eta, hala balitz, haiek sendatzera edota hiltzera bideratutako neurriak hartuko dira.

5.- Animalia hil behar bada, konortea berehala galaraziko dioten eta sufrimendurik eragingo ez dioten baliabideak erabili beharko dira. Edozelan ere, albaitari baten kontrol eta ardura pean jardun beharko da. Animalia hiltzeak eragindako gastuak, bestalde, jabearen kontura izango dira, baldin eta hura ezaguna bada.

9. artikulua.- Nola jardun eraso baten aurrean

1.- Animalia batek eraso egin eta norbaitek udal zerbitzuari horren berri ematen badio, edota salaketa jartzen badu, udal zerbitzua harremanetan jarriko da salaketa jarri duenarekin, gertakarien berri jasotzeko eta, horren bidez, eraso duen animalia osasun-eragindako gastuak, bestalde, jabearen kontura izango dira, baldin eta hura ezaguna bada. Era berean, udal zerbitzuak gertakarien berri emango dio administrazio-espeditentea

izapidetu behar duen agintaritzari, hau da, animalia erroldatuta dagoen udalari edota, horren ezean, jabearen bizilekuko udalari, eta dokumentazioa helaraziko dio.

2.- Erasoaz gain haginkadagatik lesiorik balego, izapidetzeko eskumena duen agintaritzak espedientea irekitzeko eskatuko die Osasun Saileko Epidemia Zaintzako Unitateari eta foru aldundietako animalien osasun zerbitzuei.

3.- Lesioak eragin dituen animalia jabeak edota edukitzaileak, albaitari ofizialarengana jo beharko du 24 orduko epean, txakurra behatu dezan hamalau egunean zehar. Dena dela, animalia behatzeko aldi hori aldatu egin daiteke, animalia zein den, edota unean uneko baldintza epizootologikoek hala aholkatzen badute; epea aldatzeko, dena dela, aurretiazko txosten tekniko oinarritua behar izango da. Animaliak haginka egin duenetik 24 ordu igaro badira eta jabeak edo edukitzaileak ez badu bere borondatez albaitariarengana jo, dagokion udal agintaritzak hala egiteko errekerimendua helaraziko dio, eta animalia harrera-zentro batera edota isolamendura sartzea ere xedatu ahal izango du. Errekerimendu hori ez betetzea, arau-hauste larritzat hartua izango da, Euskadiko osasun-ordenamenduari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 36.2 b) 1. artikulua araberak. Horrek, gainera, ez du eragotziko araudia betetzeko beharrezko jotzen diren kautela-neurriak hartzea. Edozelan ere, emandako txosten edo egiaztagiraren kostua, horrelakorik balego, animalia jabearen edota edukitzailearen kontura izango da. Animaliak jabe edota edukitzaile ezagunik ez baleuka, egintzen berri izan duen udal zerbitzuak animalia jaso, eta behaketan jarri beharko du. Espedientea izapidetzeko eskumena duen udalari horren berri eman beharko zaio, gertakariak jazo eta 72 orduko epean.

Albaitariak animalia behatu beharko du, zoonosi arriskua antzemateko ala arrisku hori baztertzeko, eta animalia arrisku potentziala ebaluatzeko. Gero, dagokion egiaztagiria/txostena egingo du horri buruz. Animalia jabeak edota edukitzaileak, behaketa amaituta, 48 orduko epea izango du albaitariaren txostena/egiaztagiria bidaltzeko espedientea izapidetu behar duen agintaritzari (lehen paragrafoan adierazita dago), txosten/egiaztagiri hori espedientean txertatu dezan. Agintaritzak horrek, bere aldetik, albaitariaren egiaztagiraren/txostenaren kopia bidaliko dio dagokion foru aldundiko abeltzaintza zerbitzura eta Osasun Saileko Zaintza Epidemiologiko Unitatera. Behaketaren ondorioz antzemango balitz osasun-arriskua eragiten duten inguruabarrak daudela, udal agintaritzak xedatu ahal izango du txakurrak giltzapean eta isolatuta jarraitzea.

4.- Erasoan ez bada haginkadaren ondoriozko lesiorik eragin, txakurraren jabeak edota edukitzaileak animalia albaitariarengana eraman beharko du, albaitariak, egoki iritzitako denbora-aldian zehar, behatu dezan, eta ebaluatu dezan animalia arrisku potentziala. Horren ostean, albaitariak dagokion egiaztagiria emango du, eta jabeak agintaritzak eskumendunari bidaliko dio, espedientea izapidetu dezan.

10. artikulua. Debekuak

1.- Berriaz debekatuta egongo da:

- a) Animaliei tratu txarrak ematea, edota sufrimendu, kalte edo larritasun bidegabeak eragitea.
- b) Animaliak abandonatzea.
- c) Bizirauteko behar dituzten elikagaiak ez ematea, edota higiene eta osasunaren aldetik desegokiak diren instalazioetan edukitzea.
- d) Mutilazioak egitea, albaitari batek ezinbestean egin beharrekoak salbu (beharrizan funtzionalei erantzuteko, edota arraza jakin batzuetarako, oro har, onartutako ezaugarri estetiko batzuk mantentzeko).
- e) Animaliei alkohola, drogak edota botikak ematea, edota kalte fisikoak edo psikikoak eragin ahal dizkieten edozein manipulazio egitea, txapelketa batean animalia errendimendua hobetzeko bada ere.
- f) Etxe-abere izateak dakartzan portaera eta jarreraz besteko portaera eta jarrerak, edota tratu iraingarriak dakartzatenak inposatzea.
- g) Animalien arteko borroka antolatzea.
- h) Animaliak bide publikoan hiltzea, beharrizan larria dagoenean edota ezinbesteko kasuetan izan ezik.
- i) 14 urtetik beherakoei edota ezgaituei animaliak dohantzan ematea edota lagatzea, guraso-agintea edota zaintza duenaren baimenik gabe. Arriskutsuak izan daitezkeen txakurren kasuan, debekuak 18 urtetik beherakoei eragingo die.
- j) Animaliak kalean saltzea, baimendutako azoka edo ferietatik kanpo.
- k) Animaliak saltzea Administrazioaren kontrolpetik at dauden laborategi edota klinikei.
- l) Animaliak dohantzan ematea publizitate-xedeetarako, edota sari gisa erabiliak izan daitezen, haiek saltzetik eratorritako negozio juridikoen kasuan salbu.
- m) Babestutako espezieetako animaliak saltzea, edukitzea edota erakustea, haiei buruzko lege espezifikoek xedatutakoaren arabera.
- n) Animaliak antzokietara, dantzalekuetara, filmazioetara, argazkietara, grabaketetara edota propaganda-jardueretara eramatea, baldin eta sufrimendua badakarkie, edota haientzat iraingarria bada.

2.- Era berean, berariaz debekatuta dago:

- a) Edozein motatako elikagaiak prestatzeko, biltegitzeko, garraiatzeko, manipulatzeko edota saltzeko lokaletara animaliak sartzeara, edota animaliak bertan edukitzea, osasun-agintaritzaren eskumendunak edota araudi espezifikoak horretarako baimena ematen dutenean salbu.
- b) Ikuskizun publikoak edota kirol-, kultura- nahiz jolas-ikuskizunak egiten diren lokaletara, igerileku publikoetara edota osasun-zentroetara animaliak sartzeara, edota animaliak lokal horietan edukitzea. Salbuespena: aipatutako lokaletan animalien txapelketak edota ikuskizunak antolatzen direnean (horrelakoetan haiek baitira protagonista).
- c) Animaliak ikastetxeetara sartzeara edota bertan edukitzea, ez bada animalia horiek prestakuntza-prozesuen parte direla, eta, betiere, ikastetxeko zuzendariaren edo arduradunaren erantzukizunpean.
- d) Ostalaritza-lokaletako, kafetegietako, tabernetako eta, oro har, jendeari zabalik dauden establezimenduetako titularrek, animaliak bertara sartzeara debekatu ahal izango dute. Debeku hori argi eta garbi adierazi beharko dute, dagokion

establezimenduko sarreran. Edozelan ere, eskatu beharko dute animaliak behar bezala identifikatuta eta lotuta joateko. Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak badira, muturrekoa ere eraman beharko dute jantzita. Eta, edozein kasutan, animaliak osasuntsu eta garbi egon beharko dira. Animaliek ezingo dute inolaz ere sartu elikagaiak prestatu eta manipulatzeko diren tokietara.

- e) Animaliak eremu komunitario pribatuetara sartu eta han egoteari dagokionez, kultura-sozietateetara eta aisialdirako sozietateetara kasu, bertako araudiek xedatutakoa errespetatuko da. Txakurrak lokarriz eta lepokoz lotuta eramango dira bide eta eremu publikoetatik, eta jendea dabilen eraikin publikoetako eremu komun nahiz bestelako eremuetatik. Era berean, debekatuta egongo da txakurrak sartzea haurrentzako jolas-eremuetara. Lokarria, bestalde, animalia-eremuaren ezaugarriei egokitu beharko zaio, eta, gehienez ere, bi metro luze izango da.
- f) Debekatuta dago animaliak estabulatuta izatea balkoietan, garajeetan, pabilioietan, sotoetan, teilatu lauetan, lorategietan edota bestelako lokal edota hiri-lurzatitan, baldin eta herritarrei edota oinezkoei eragozpen objektiboak eragiten badizkiete.
- g) Era berean, debekatuta dago etxe-abereak estabulatuta edo erdi estabulatuta izatea parkeetan, lorategi publikoetan edota hiri-lurzatietan.

11. artikulua.- Igogailuak erabiltzea

Igogailua hartzeko zain badaude animaliaz lagunduta doazenak eta animaliarik gabe doazenak, azken hauek animaliekin igo nahi ez badute, euren borondatea errespetatu beharko dute animaliarekin doazenean.

12. artikulua.- Animaliak garraiatzea

1.- Animaliek, garraiatuak izatean, nahikoa leku izan beharko dute. Animaliak garraiatzeko tresnak edo enbalajeak homologatuta egon beharko dira, eta animaliak egurats gorritik eta eguraldi-aldaketa bortitzetatik babestu beharko dituzte. Era berean, barruan bizirik dauden animaliak doazela ohartarazteko seinaleak eduki beharko dituzte. Animaliak behar bezalako segurtasun-neurriekin garraiatu beharko dira, gidariari eragozpenik sortuko ez diotela bermatuta.

2.- Garraioan zehar, animaliak zaindu egingo dira: behar bezala elikatuak izango dira, tarte egokiak zainduta.

3.- Animaliak garraiatzeko lekua higie- eta osasun-baldintza onetan egon beharko da, intsekturik gabe eta desinfektatuta.

13. artikulua.- Laguntza emateko txakurrak

1.- Laguntza emateko txakurrak aurreko debekuetatik salbuetsita egongo dira, laguntza ematen ari diren aldiaren zehar, eta, betiere, osasun-baldintza egokiak betetzen

badituzte; aplikatuko zaie, ordea, elikagaiak prestatu, biltegitatu edota saltzen diren lekuetara sartzeko debekua. Dena dela, horrelako txakurrei aipatutako salbuespena aplikatuko zaie, baldin eta osasuntsu eta garbi badaude, oldarkorrek ez badira eta gizakion osasunari arriskurik eragiten ez badiote.

2.- Aurreko artikuluetan xedatutakoa gorabehera, laguntza-txakurra daramaten ezinduek, txakurrarekin sartu ahal izango dira edozein leku, establezimendu edota erabilera publikoko edozein garrantzietara (izan titulartasun publikokoa zein pribatukoa), eta txakurrarekin handik ibili ahal izango dira

3.- Laguntza-txakurra dutenek, ezinduei arreta emateko laguntza-txakurrei buruzko ekainaren 29ko 10/2007 Legean jasotako betebeharrak bete beharko dituzte. Era berean, bete beharko dute laguntza-txakurren erregistroa sortzeari, horien egiaztatzea egiteari eta horren guztiaren ordezkotara araudiari buruzko Bizkaiko Foru Aldundiaren 70/2009 Dekretua, maiatzaren 12koa.

14. artikulua.- Espezieak ugaritzearen ondoriozko eragozpenak

Herritarrek, bakarrik edo abandonatuta dauden animaliak ikusten badituzte udalerrian, horren berri eman beharko diete udal zerbitzuei. Debekatuta dago bide publikoan eta orubeetan elikagaiak ematea usei eta kaleko animaliei (txakurrak eta katuak, adibidez). Etxe-abereen udal zerbitzua da galdutako animaliak, kalekoak edota abandonatuta daudenak kudeatzeko eta kontrolatzeko eskumena duen bakarra.

II. KAPITULUA.- TXAKURREI BURUZKO XEDAPEN ESPEZIFIKOAK

15. artikulua.- Araubide orokorra

1.- Txakurrei honako hauek aplikatuko zaizkie: Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzko uztailaren 1eko 101/2004 Dekretua; arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeari buruzko araubide juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legea garatzen duen martxoaren 22ko 287/2002 Errege Dekretua; aplikagarri den gainontzeko araudia; eta aurreko tituluetan jasotakoa.

2.- Txakurrak kontrolpean eta kate edo sokaz lotuta joan beharko dira bide eta eremu publiko urbanoetan eta etxebizitza kolektiboetako eremu komunetan. Kateak edo sokak, txakurraren ezaugarriekin bat egin beharko du, eta, gehienez ere, bi metro luze izango da.

3.- Parke publiko urbanoetan ere, animaliak kontrolpean eta lotuta joan beharko dira, aurreko paragrafoan adierazitako baldintzetan. Debekatuta izango dute haurren jolas-eremuetara sartzea.

16. artikulua.- Txakurrak ibiltzeko eta jolasteko eremuak

1.- Udalak finkatuko ditu txakurrak aske ibili daitezkeen eremuak eta horien ordutegiak, alkatetza-dekretu bidez. Alkate-udalburuak, ordea, eremu eta ordutegi horiek zabaldu, murriztu edota kendu ahal izango ditu.

Edozelan ere, txakurren jabeek kontrolpean izan beharko dituzte animaliak, kalterik edo eragozpenik sortu ez dezaten. Era berean, animalien gorotzak jaso beharko dituzte, eta, hori dela eta, esku-hartzea ahalbidetuko dien distantzia gorde beharko dute. Eremu horietan egonagatik ere, dagozkien gainontzeko obligazioak bete beharko dituzte.

2.- Salbuespenez, arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak ezingo dira aske eta muturrekorik gabe ibili, inolaz ere, eta egoera edozein dela ere. Ezingo dira aske eta muturrekorik ibili, eztaere, gertakari esanguratsuetan parte hartu izanagatik edota bereziki oldarkorrek direla egiaztatu izanagatik, debeku hori ezarri zaien txakurrak.

17. artikulua.- Txakurren identifikazioa

1.- Txakurren eta etorkizunera ezarri daitezkeen beste animalien jabeek, animalia horiek identifikatu eta erroldatu beharko dituzte, jaio edo eskuratzen dituzten dataren hurrengo hilabetetik aurrera. Hala egin beharko dute, baldin eta animaliak udalerrian biziko badira, edota bertan hiru hilabete baino gehiago emango badituzte.

2.- Identifikazioa egiteko, lepoko ezker aldean gailu mikroelektronikoa edo mikrotxipa jarriko dio al baitariak animaliarri. Hala egingo da, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren 1993ko maiatzaren 5eko Aginduan xedatutakoari jarraituta, non Euskal Autonomia Erkidegoan animaliak identifikatzeko metodo elektronikoen erabilera arautu baitzen. Horrekin batera, ezarri daitezkeen beste arau guztietan xedatutakoa ere bete beharko da.

Animalia identifikatuta dagoela, al baitariak kartilla ofiziala beteko du. Horrekin batera, txakurraren identifikazio-agiria, eta animalia Euskal Autonomia Erkidegoko Animaliak Identifikatzeko Erregistro Orokorrean (REGIA) inskribatzeko eskabidea ere beteko du al baitariak. Dokumentu hori interesdunen esku egongo da, al baitarien bulegoetan. Al baitariak dokumentuaren ale bat gordeko du, eta ale bi emango dizkio animalia jabearen: bata, Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza eta Arrantza Sailera bidali beharko du jabeak, bere NAREN kopiarekin batera, datuak REGIAN sartu ditzaten.

3.- Animalia erroldan inskribatzen ez bada, edota ez bada hala egiten horretarako aurreikusitako epean, horrek arau-haustea eragingo du, Animalien Babesari buruzko Legearen 27.1 a) artikuluan xedatutakoaren arabera.

4.- Animalia jabeak, REGIAri jakinarazi beharko dio bertan dituzten datuen gaineko edozein datu aldatu egin dela, bereziki, honako hauek aldatzen badira:

a) Jabearen edota animalia buruzko datuen aldaketa.

- b) Titulartasun-aldaketak.
- c) Animalia bajaran ematea, hil egin delako edota EAetik kanpora joan delako.
- d) Animalia desagertzea, galdu egin delako edota lapurtu egin dutelako.
- e) Ohiko etxebizitza aldatzea, 3 hilabetetik gorako epe batez.

Jakinarazpena 10 eguneko epean egin beharko du jabeak. Salbuespenez, animalia galdu edo lapurtua izan den kasuetan, horri buruzko jakinarazpena 5 eguneko epean egin beharko da, animalia galdu edota lapurtzeagatiko salaketa jarri den egunetik zenbatzen hasita, eta salaketaren kopia aurkeztu beharko da.

Arriskutsuak izan daitezkeen txakurren kasuan, 48 orduko gehienezko epean jakinarazi beharko du jabeak txakurra galdu egin dela edo lapurtua izan dela, egintzen berri duenetik zenbatzen hasita. Erregistroan dagoen edozein daturi buruzko aldaketa, berriz, bost eguneko epean jakinarazi beharko du.

18. artikulua.- Txakurren errolda

1.- Udalak txakurren errolda orokorra izango du. Errolda hori lotuta egongo da Bizkaiko Animalen Identifikaziorako Lurralde Erroldarekin (Bizkaiko Foru Aldundiko Abeltzantza Zerbitzuan dago).

2.- Errolda horretan, honako datu hauek egongo dira:

- a) Animalari dagokionez:
 - Esleitutako eta jarritako identifikazio-kodea.
 - Espeziea.
 - Arraza.
 - Sexua.
 - Ile-kolorea.
 - Jaiotze-data.
 - Ohiko etxebizitza.
 - Erabili ohi diren beste identifikazio-metodo batzuk.
- b) Animalia jabearen dagokionez:
 - Izen-abizenak.
 - NA.
 - Ohiko etxebizitza.
 - Telefonoa.
- c) Beste datu batzuk:
 - Animalia identifikatuko duen albaitari ofizialaren datuak.
 - Identifikatze-data.
 - Erantzukizun zibilerako aseguru-konpainia, eta polizaren zenbakia.

3.- Horrez gain, arriskutsuak izan daitezkeen animalien erregistro berezia egongo da. Bertan, lehenago adierazitako xehetasunez gain, jaso beharko da ea animalia gizakiekin bizitzeko den, ala bestelako xedea daukan: zaintza, babesa, edota besterik.

4.- Udalari dagokio datu-baseen mantentze-lanak egitea, eta berea izango da bertan jasotako datuen konfidentziasuna gordetzeko erantzukizuna.

19. artikulua.- Animalia identifikatzeak eta osasun-kartilla egiteak eragindako gastuak

Jabearen kontura izango dira animalia identifikatzeak eta txakurraren osasun-kartilla egiteak eragindako gastuak.

III. KAPITULUA.- ARRISKUTSUAK IZAN DAITEZKEEN ANIMALIEI BURUZKO XEDAPEN ESPEZIFIKOAK

20. artikulua.- Araubide orokorra

Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeari buruzko araubide juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legea garatzen duen martxoaren 22ko 287/2002 Errege Dekretua, eta aplikagarri den gainontzeko araudia aplikatuko zaizkie arriskutsuak izan daitezkeen animaliei.

Horri lotuta, arriskutsuak izan daitezkeen animaliak izango dira:

- a) Ordenantza honen I. Eranskinean zerrendatutako arrazakoak eta horiekin gurtzatutakoak.
- b) Martxoaren 22ko 287/2002 Dekretuko II. Eranskinean jasotako ezaugarri guztiak edo gehienak dituztenak. Salbuespenak: autonomia-erkidegoko edota, hala balegokio, Estatuko legeriaren arabera akreditatutako zein hezitako laguntza-txakurrak; eta laguntza-txakur izateko hezte-prozesuan daudenak.
- c) Aurreko ataletan jasota egon ez arren, arriskutsuak izan daitezkeen animaliatzat hartuko dira izaera bereziki oldarkorra daukatena, edota gizakiei zein beste animaliei eraso dietena.

21. artikulua.- Lizentziaren beharra

1.- Arriskutsuak izan daitezkeen animalien erregimen juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1990 Legeak xedatutakoaren arabera, horrela sailkatutako edozein animalia edukitzeko, beharrezkoa izango da aurretiaz dagokion udal-lizentzia eskuratzea. Lizentzia hori, eskatzailearen ohiko etxebizitza dagoen udalerriko udalak

emango du; bestela, udal horri aurretiaz jakinarazita, dagokion merkataritza- edo prestakuntza-jarduera egiten den udalerriko udalak emango du lizentzia, eta, bertan, honako baldintza hauek betetzen direla egiaztatuko da:

- Adin nagusikoa izatea, eta animalia behar bezala zaintzeko ezintasunik ez izatea. Administrazioak kontrakorik frogatu ezean, joko da gaitasuna badutela adin nagusiko izan, eta euren eskubide zibilak osoki egikaritzen dituztenek.

- Kondenarik jaso ez izana giza hilketagatik, lesioengatik, torturengatik, askatasunaren nahiz osotasun moralaren aurkako delituengatik, sexu-askatasunaren zein osasun publikoaren kontrako delituengatik, edota narkotrafikoagatik. Hori egiaztatzeko, zigor-aurrekarien agiria aurkeztuko da. Bestalde, arriskutsuak izan daitezkeen animalien erregimen juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1993 Legearen 13. artikuluko 3. atalean aurreikusitako zehapen osagarriak jaso ez izana, arau-hauste larri edo oso larriengatik. Hala eta guztiz, lizentzia aldi baterako etenda izateak ez du eragotziko berau lortu edota berritu ahal izatea, baldin eta eskabidea egiten den unean, ezarritako etete-zehapena oso-osorik bete bada.

- Gaitasun psikologikoari buruzko egiaztagiria. Kolegiatutako mediku, psikiatra edota psikologoak egindako agiri bidez egiaztatuko da.

- Hirugarrenei eragin dakizkiokeen kalteei erantzuteko erantzukizun zibileko aseguru formalizatu izanari buruzko egiaztagiria. Aseguru horrek, hirurehun mila (300.000,00) euroko estaldura aurreikusi beharko du.

- Horrez gain, aseguru hori kontratatu beharko da animalia identifikatu eta hamar eguneko epean, eta, betiere, animalia dagokion erregistroan inskribatu aurretik. Aseguru beste aseguru batzuen barruan egon daiteke, baina, edozelan ere, kontratatu dela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko da; agiri hori aseguru egin duen konpainiak egin beharko du, 101/2004 Dekretuaren III. Eranskineko ereduari jarraituta. Bertan, berariaz identifikatuko da aseguru zein txakurri dagokion, aseguru noiz sartu den indarrean, eta noiz iraungiko den.

2.- Administrazio-lizentzia bost urtean behin berritu beharko da. Hala eta guztiz, lizentziak indarraldia galduko du, titularrak aurreko atalean ezarritako ezaugarriren bat betetzen ez duen unean bertan. Lizentzian ageri diren datuetako edozein aldatzen bada, titularrak hala jakinarazi beharko dio alkate-udalburuari (berari dagokio-eta lizentzia ematea), hamabost eguneko epean. Epe hori zenbatzen hasiko da aldaketa ematen den unean bertan.

3.- Bide judizialean edota administrazio-bidean indarreko administrazio-lizentziari eragiten dioten esku-hartze, kautela-neurri edo eteteak ezartzen badira, ezin izango da lizentzia berririk lortu, edota dagokion lizentzia berritu, neurri horiek bete arte.

22. artikulua.- Arriskutsuak izan daitezkeen animalien erregistroa

1.- Arriskutsuak izan daitezkeen animalien jabeek, animalia horiek txakur-errodan eta arriskutsuak izan daitezkeen animalien erregistro berezian inskribatu beharko dituzte, dagokion lizentzia eskuratu, eta data horretatik aurrerako hamabost eguneko epean.

2.- Administrazio-aginteeek zein aginte judizialek, oharrak jasoko dituzte, idatziz, aipatutako erregistro bereziaren orrian, arriskutsuak izan daitezkeen animaliek euren bizitzan zehar eragindako gertakariei buruz. Albaitariak edota aginte eskumendunak animalia hil dela egiaztatzen duenean denean itxiko da animalia horren erregistro-orria. Era berean, jabeak jakinarazi beharko du animalia saldu, eskualdatu, dohantzan eman, lapurtu, hil edota galdu egin dela. Hori ere jasota utziko da animalia erregistro-orrian.

3.- Arriskutsua izan daitekeen animalia bat Euskal Autonomia Erkidegotik kanpora eramaten bada, dela betiko, dela hiru hilabetetik gorako eperako, jabeak dagozkion udal-erregistroetan inskribatu beharko du animalia hori.

23. artikulua.- Segurtasun-neurriak

1.- Arriskutsuak izan daitezkeen animalien jabeek, hazleek edota edukizailleek, indarreko legeriak ezarritako hiri-segurtasuneko arau guztiak bete beharko dituzte, animalia horien eta gizakion arteko elkabizitza egokia bermatu, eta herritarrei eragozpenik ez sortzeko.

2.- Toki edo eremu publikoetatik arriskutsuak izan daitezkeen animaliak daramatzatenean, aldean eraman beharko dute aurreko artikuluan aipatutako lizentzia. Horrekin batera, arriskutsuak izan daitezkeen animalien erregistroan izena emanda egotearen egiaztatzea ere eraman beharko dute.

3.- Beste alde batetik, Udalak arriskutsua izan daitekeen animaliatzat katalogatuko du 2. artikuluko 4. ataleko b) letran ezarritako baldintzak betetzen dituen. Behin horrela katalogatuta, animalia jabeari eskatuko zaio aurreko atalean ezarritako lizentzia lortzeko.

24. artikulua.- Betebeharrak eta debekuak

1.- Arriskutsua izan daitekeen animalia dagoen eremuak, segurtasun-sistema egokia izan beharko du, animaliak ihes egin ez dezan. Izan ere, bermatu beharko da ez dagoela inolako arriskurik auzokideentzat, oinezkoentzat edota beste animalientzat.

2.- Debehatuta daude txakurrak lotzeko uhal luzagarriak. Horiek, edozelan den, Ordenantza honetan aurreikusitako gehienezko luzera izan beharko dute.

3.- Arriskutsuak izan daitezkeen animaliek muturrekoa etengabe eraman beharko dute jantzita bide publikoetan, eraikin kolektiboetako eremu komunetan eta, oro har, eremu publikoetan.

4.- Ezingo dute parte hartu udal-mugarte honetan egiten diren txakur-erakusketa, -lehiaketa eta bestelako ekitaldietan.

5.- Debekatuta dago animaliak entrenatzea borroketan eta erasoan aritzeari begira, euren oldarkortasuna areagotzeari begirara eta animaliak indartzeari begira. Zaintzarako eta defentsarako hezteak, berriz, eskumena duen administrazio-agintaritzak emandako gaitasun-egiaztagiria duten hezitzaileek bakarrik eman ahal izango dute.

6.- Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak finka, txalet, lurzati, terraza, patio edota mugatutako bestelako eremu batean badaude, lotuta egon beharko dira, ez bada behar bezalako azalera, altuera eta itxitura duen bizitokia dutela. Horren xedea da bertara doazenak edota hurbiltzen direnak haiengandik babestea.

7.- Arriskutsua izan daitezkeen animalia bat lapurtua izaten bada, edota galdu egiten bada, titularrak hala jakinarazi beharko dio udal erregistroari, gertakarien berri izan eta berrogeita zortzi orduko epean.

III. TITULUA ANIMALIEI LOTUTAKO JARDUERAK

I. KAPITULUA.- NUKLEO ZOOLOGIKOAK

25. artikulua.- Araubide orokorra

1.- Nukleo zoologikoei aplikatuko zaie gai horri buruzko apirilaren 11ko 81/2006 Legea.

2.- Era berean, aurretiaz udal lizentzia lortu beharko dute, Euskal Herriko Inguru babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/98 Lege Orokorrak, eta lege horretan aipatutako jardueretarako lizentzia eskuratzetik salbuetsitako jardueren zerrenda finkatzen duen 165/1999 Dekretuak ezarritako baldintzetan.

II. KAPITULUA.- ANIMALIA TXIKIEN KONTSULTAK, KLINIKAK ETA OSPITALEAK

26. artikulua.- Araubide orokorra

Titulu honen barruan daude animalien haztegiak, hezte-zentroak eta aterpeak, animaliak saltzeko lokalak, kontsultak, klinikak eta albaitaritza-ospitaleak, eta udalerrietan aldi baterako ematen diren jarduerak, adibidez: zirkoak, zooak, ibiltariak, eta abar.

27. artikulua.- Udal-lizentziaren beharra

Jarduera hauek, aplikagarri zaizkien arau sektorialak beteta gauzatu beharko dira. Era berean, dagokion udal lizentzia beharko dute.

IV. TITULUA IKUSKAPENA ETA KONTROLA

28. artikulua.- Ikuskapena eta kontrola

1.- Udaltzainei edota agintari publiko izaera duten beste funtzionario batzuei dagokie ordenantza honetan araututako gaien ikuskapena eta kontrola egitea, eta, zeregin horretan, akta ere jaso ahal izango dute (non interesdunak bere desadostasuna agertu ahal izango duen). Akta hori, berriz, interesdunari jakinaraziko zaio, akta edota salaketa-buletin bidez, eta organo eskudunari bidaliko zaio, dagozkion neurriak hartu ditzan eta, egoki balitz, zehapen-espeditentea hastea xedatu dezan.

2.- Arau-haustek delitua edota falta balira, zehapena ezartzeko eskumena duen organoak egitateen berri emango dio zigor-arloko jurisdikzioari. Hortik aurrera, ez du zehapen-prozeduran aurrera egingo, harik eta ebazpen judizial irmoa egon arte. Iraungitze-epea ere eten egingo da, une horretararte.

3.- Esku-hartze judizialaren aurretik administrazio-espeditenteak izapidetu dituzten agintariak hartutako neurri kautelarrak, indarrean mantendu ahal izango dira, agintaritza judizialek berariazko erabakirik hartzen ez duten bitartean.

V. TITULUA ZEHAPEN-ARAUBIDEA

I. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

29. artikulua.- Arau-haustek eta zehapenak

1.- Arau-hauste administratiboak izango dira ondoko hauetan hala izendatutako ekintzak eta ez-egiteak: animalien babesari buruzko urriaren 29ko 6/1993 Legean;

arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legean; Euskadiko osasun-ordenamenduari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legean; eta Ordenantza honetan, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen XI. Tituluan xedatutakoaren arabera (Toki Administrazioa Eraberritzeko Neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legean oinarrituta).

2.- Arau-hauste administratiboak zigortuko dira artikulu honen aurreko atalean aipatutako arauak xedatutakoaren arabera. Horrek ez du eragotziko Ordenantza honek zehapenen ezaugarriei eta graduaziori buruz xedatutakoari ere erreparatu ahal izatea, arau-haustek hobeto identifikatu ahal izateko eta, hartara, horiei zein zehapen dagokion zehazkiago finkatu ahal izateko.

II. KAPITULUA.- ANIMALIEN BABESA

30. artikulua.- Arau-haustek

1.- Arau-hauste arinak izango dira:

- a) Ordenantza honetako obligazioak ez betetzea, baldin eta horrek eragin larririk ez badauka herritarren higienean, segurtasunean edota lasaitasunean.
- b) Erroldatu gabeko etxe-abereak izatea identifikatu gabe, hori derrigorrezkoa den kasuetan.
- c) Animaliak garraiatzea autonomia erkidegoko legerian edota Ordenantza honetan aurreikusitakoa bete gabe.
- d) Animaliak edukitzea behar den arreta eta zaintza eskaini ezin zaien tokietan.
- e) Animaliei tratu iraingarriak ematea, edota etxe-abere izateak dakartzan portaera eta jokaerez bestekoak eginaraztea.
- f) REGIARI ez jakinaraztea txakurren errolda-identifikazioa, edota identifikazio horretan emandako aldaketak. Txakurren errolda-identifikazioak, bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzko arauak jasotzen dituen ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuaren 3. artikuluan adierazitako baldintzak bete beharko ditu.
- g) Dagokion erantzukizun zibileko poliza kontratatu ez izana, Ordenantza honek hala egiteko agintzen duen kasuetan, eta baldin eta hori arau-hauste larria ez bada.
- h) Animaliak jarraian edukitzea etxebizitza partikularretan, terrazetan, balkoietan, lorategietan, lonjetan, pabilioietan, kamaroteetan, lokaletan, eta abar, baldin eta auzokideei eragozpen objektiboak eragiten badizkiete, edota animalia horiek behar bezala zainduta ez badaude.
- i) Txakurrak kontrolpean eta kate edo sokaz lotuta ez joatea bide eta gune publiko urbanoetatik edota etxebizitza kolektiboetako eremu komunetatik. Kateak edo sokak, bestalde, txakurraren ezaugarriekin bat egin beharko du, eta, gehienez ere, bi metro luze izango da.
- j) Ordenantza honetan aurreikusitako beste edozein obligazio ez betetzea, baldin eta hura arau-hauste larria edo oso larria ez bada.

2.- Arau-hauste larriak izango dira:

- a) Animaliak behar bezala ez elikatzea, edota higie- zein osasun-baldintza egokiak ez dituzten instalazioetan edukitzea.
- b) Esterilizatzea, mutilatzea eta animaliak hiltzea albitarien kontrolik gabe, edota animalien babesari buruzko Legean eta hori garatzeko arauetan xedatutakoaren kontra, bereziki ekainaren 1eko 1/2004 Dekretuak ezarritakoaren kontra.
- c) Txertorik ez jartzea, edota derrigorrezko tratamenduak ez egitea.
- d) Animaliak baimenik gabe saltzea.
- e) Animaliak aldi baterako hartzeko, hazteko edota saltzeko diren establezimenduek bete beharreko baldintzak ez betetzea, edota establezimendu horiek ez betetzea Animalien Babesari buruzko urriaren 29ko 6/1993 Legean edota hori garatzeko arauetan jasotako edozein betebeharr edo baldintza.
- f) Animaliei tratu txarrak ematea edota erasotzea, behar ez den sufrimendua eragitea eta lesioak edota mutilazioak eragitea.
- g) Animaliei, sufrimendua edota beharrezkoak ez diren kalteak eragingo dizkieten substantziak ematea, zuzenean zein elikagaien bidez.
- h) Kalteak eragin ditzaketen animaliak behar bezala ez zaintzea.
- i) Animaliei behar bezalako osasun-zaintza ez ematea, agerikoak edo larriak diren gaitzak edota sufrimenduak artatzeko.
- j) Animaliek parte hartzea dagokion baimen administratiborik ez duten ikuskizunetan.
- k) Txakurtegiak jaso eta gero, norberaren jabetzapekoak bezala identifikatutako animaliak ez hartzea.
- l) Animaliak baimenik gabe saltzea.

3.- Arau-hauste oso larriak izango dira:

- a) Animalien arteko borrokak edota legeak araututako bestelako ikuskizunak antolatzea, baldin eta animaliarri heriotza, lesioak edota sufrimendua eragiten badizkio.
- b) Animaliak hiltzea, dela eraso bidez, dela pozoia emanda.
- c) Etxe-abereak abandonatzea. Abandonatutako animaliak izango dira euren jatorriari edota jabeei buruz inolako informaziorik ez daramatenak, bakarrik doazenak eta euren galera inork salatu ez dituenak. Etxe-aberea abandonatuta dagoela joko da, era berean, identifikatuta egon arren, jabeak edota baimendutako pertsonak haren galera salatu ez badu, edota, animalia jasota eta atxikita dagoela jakinarazita, jabeak 7 egun igaro eta gero hura berreskuratu ez badu.
- d) Zinerako edota telebistarako eszenak filmatzea, baldin eta animaliarri itxurazkoak ez diren ankerkeria, tratu txarrak edota sufrimendua eragiten bazaizkio.
- e) Baimendutako ikuskizunetan parte hartzen duten animaliei anestesia, drogak edota bestelako produktuak ematea, otzanago agertu daitezen, errendimendu handiagoa izan dezaten edota euren berezko portaeraren aurkakoa den beste edozein xedetarako.
- f) Txakur-arraza arriskuak haztea edota gurutzatzea.
- g) Bide eta eremu publikoetan pozoitutako elikagaiak uztea.
- h) Animaliak behartzea debekatutako ikuskizunetan parte hartzera.
- i) Hiru arau-hauste larri egin eta epai irmo bidez zigorra ezarri izana, zehapen-espedita hasi aurreko bi urteetan zehar.

31. artikulua- Zehapenak

Animalien babesari buruzko urriaren 29ko 6/1993 Legearen arabera, gai horri dagozkion arau-hausteez honako zehapen hauek izango dituzte:

- a) Arau-hauste larriek: 30,05 eta 300,51 euro bitarteko isuna.
- b) Arau-hauste larriek: 300,52 eta 1.502,53 euro bitarteko isuna.
- c) Arau-hauste oso larriek: 1.502,54 eta 15.025,30 euro bitarteko isuna.

32. artikulua- Zehapen osagarriak

1.- Ebazpen zehatzaileak aginduko du arau-haustearen xede izandako animaliak konfiskatzea, horien osotasun fisikoa bermatzeko beharrezkoa denean.

2.- Konfiskatutako animaliak, horretarako egokitutako instalazioetan zainduko dira, eta, ahal dela, hirugarrenei lagako zaizkie; bestela, hil egingo dituzte.

3.- Arau-hauste larrien edo oso larrien kasuan, aukera egongo da dagozkion instalazioak, lokalak edota establezimenduak aldi baterako itxeko: gehienez ere bi urtez, arau-hauste larrien kasuan; eta gehienez ere lau urtez, arau-hauste oso larrien kasuan. Horrez gain, lau urtean (gehienez ere) beste animalia batzuk eskuratzeko debekua ere ezarri ahal izango da.

4.- Hiru urte igaro aurretik arau-hauste oso larriak errepikatzen badira, galdu egingo da administrazio-baimena.

33. artikulua.- Zehapenak mailakatzea

1.- Isunen zenbatekoa mailakatzeko eta aurreko artikuluko 3. artikuluan aurreikusitako zehapenen iraupena zehazteko, aintzat hartuko dira honako inguruabar hauek:

- a) Egindako arau-haustek gizartean edota osasun-eremuan zer-nolako garrantzia duen, edota zenbaterainoko kaltea eragin duen.
- b) Legez kanpoko irabazi-asmoa, eta arau-haustearekin lortutako onuraren zenbatekoa.
- c) Arau-haustek berriro egitea. Errepikapena egon dela joko da, baldin eta administrazio-bideko ebazpen irmo bidez zehapena ezarri bada, Ordenantza honetan aurreikusitako arau-hausteetako bat egin izanagatik, zehapen-espeditentea hasi aurreko bost urteetan.
- d) Arau-haustea mailakatzerakoan aringarri edota astungarri izan daitezkeen bestelako inguruabarrak. Eragin horietarako, aintzat hartua izango da, bereziki, haurren edota ezgaitu psikikoen aurrean animaliei eragindako biolentzia.

2.- Egintza batek arau desberdinetan tipifikatutako arau-hauste administratibo bi ala gehiago eragiten baditu, zenbateko handiena duen zehapena aplikatuko da, eta espedientea, zehatzeko eskumena duen organoak izapidetu eta ebatzi beharko du.

34. artikulua.- Zehatzeko eskumena

1.- Beste organo batzuen zehatzeko eskumenaren kalterik gabe, Udalari dagokio Ordenantza honetan xedatutakoaren aurkako arau-hausteen zehapenak ezartzea.

2.- Alkatetza-udalburutza izango da arau-hauste arinengatiko espedienteak hasi eta ebazteko organo eskumenduna, indarreko legeriak Udalari esleitutako eskumenen barruan.

3.- Alkatetza-udalburutza izango da, Udalbatzak ahalorde hori eskuordetuta, arau-hauste larriengatiko espedienteak hasi eta ebazteko organo eskumenduna.

4.- Arau-hauste oso larriak, berriz, foru-organoen eskumendunak zehatzeko ditu.

35. artikulua.- Kautela-neurriak

1.- Arau-haustek delitua edota falta balira, zehapena ezartzeko eskumena duen organoak egitateen berri emango dio zigor-arloko jurisdikzioari. Hortik aurrera, ez du zehapen-prozeduran aurrera egingo, harik eta ebazpen judizial irmoa egon arte. Iraungitze-epea ere eten egingo da, une horretararte.

2.- Esku-hartze judizialaren aurretik administrazio-espedienteak izapidetu dituzten agintariak hartutako kautela-neurriak indarrean mantendu ahal izango dira, agintaritza judizialek berariazko erabakirik hartzen ez duten bitartean.

3.- Behin zigor-espedienteak hasita, eta arau-hauste berririk eman ez dadin, espedientearen izapidegileak kautela-neurri hauek hartu ahal izango ditu (behar bezala arrazoituta, noski):

- a) Ordenantza honetan aurreikusitako edozein egoera pairatu izanaren susmoa duten animaliak prebentiboki atxikitzea eta zaintzapean jartzea, animalien harrerarako zentro batean.
- b) Instalazioak, lokalak edota establezimenduak prebentiboki ixtea.

III. KAPITULUA.- ARRISKUTSUAK IZAN DAITEZKEEN ANIMALIAK

36. artikulua.- Arau-haustek

1.- Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko erregimen juridikoa arautzen duen abenduaren 23ko 50/1999 Legearen arabera, bertan tipifikatutakoak izango dira arau-hauste administratiboak.

2.- Arau-hauste oso larriak izango dira:

- a) Arriskutsua izan daitekeen animalia bat abandonatzea. Abandonatutako animaliak izango dira euren jatorriari edota jabeei buruz inolako informaziorik ez daramatenak, bakarrik doazenak eta euren galera inork salatu ez dituenak. Animalia abandonatuta dagoela joko da, era berean, identifikatuta egon arren, jabeak edota baimendutako pertsonak haren galera salatu ez badu, edota, animalia jasota eta atxikita dagoela jakinarazita, jabeak 7 egun igaro eta gero hura berreskuratu ez badu.
- b) Arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak edo animaliak edukitzea lizentziarik gabe.
- c) Gaitasun-agiria duenak arriskutsua izan daitekeen txakur edo animalia bat saltzea edota eskualdatzea lizentziarik ez daukanari.
- d) Gaitasun-agiririk ez dutenek, arriskutsuak izan daitezkeen animaliak heztea.
- e) Animaliak heztea euren oldarkortasuna pizteko edota debekatuta dauden xedeetarako.
- f) Arriskutsuak izan daitezkeen animalien txapelketak, ariketak, erakusketak edota ikuskizunak antolatzea, edota animalia horiek bertan parte hartzea, xedea denean euren oldarkortasuna erakustea.

3.- Arau-hauste larriak izango dira:

- a) Arriskutsua izan daitekeen animalia bat aske uztea, edota behar bezalako neurririk hartu ez izana, hain zuzen ere, ihes egin ez dezan edota galdu ez dadin.
- b) Animalia erroldan inskribatu ez izana.
- c) Animalia udal erregistroan inskribatu ez izana.
- d) Arriskutsua izan daitekeen txakurra muturrekorik gabe edo katez lotu gabe egotea toki publikoetan.
- e) Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak garraiatzea Ordenantza honetan xedatutakoa bete gabe.
- f) 50/1999 Legean ezarritako zereginak betetze aldera, agintaritzak edota horren agenteek eskatutako datuak edota informazioa emateari uko egitea, zuzena ez den informazioa ematea, edota dokumentazio faltsua ematea.

4.- Arau-hauste arinak dira:

Abenduaren 23ko 50/1999 Legearen aurkako arau-haustek, hain zuzen ere, aurreko ataletan aurreikusi ez direnak, eta, berezik, honako hauek:

- a) Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak bide eta eremu publikoetan egonda, horiek daramatzanak udal lizentzia eta erregistroan izena emanda egotearen egiaztatzea aldean ez eramatea.

- b) Bide eta eremu publikoetan, arriskutsua izan daitekeen txakur bat baino gehiago edukitzea, pertsonako.
- c) Bide publikoan arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak edukitzea soka zein kate luzagarriekin, edota bi metro baino luzeago diren soka edo kateekin.

37. artikulua- Zehapenak

Aurreko artikuluan jasotako arau-hausteei, honako isun hauek dagozkie:

- Arau-hauste larriak: 150,25 eurotik 300,51 eurora bitarteko isunak.
- Arau-hauste larriak: 300,52 eurotik 2.404,05 eurora bitarteko isuna.
- Arau-hauste oso larriak: 2.404,06 eurotik 15.025,30 eurora bitarteko isuna.

38. artikulua.- Zehapen osagarriak eta kautela-neurriak

1.- 36. artikuluan tipifikatutako arau-hausteei zenbait zehapen osagarri aplikatu ahal izango zaizkie, hala nola: arriskutsuak izan daitezkeen animaliak konfiskatzea, esterilizatzea edota hiltzea; establezimendua ixtea; edota aldi baterako edota betiko etetea arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentzia, zein hezitzaile-gaitasunaren egiaztagiria.

2.- Arau-hausteei delitua edota falta eragin dezaketen kasuetarako, agintaritza eskumendunak xedatu ahal izango du animalia atxikitzea, agintaritza judizialak dagokion erabakia hartu bitartean; hortaz, organo judizial eskumendunari egitateen berri eman beharko zaie.

3.- Agintaritza eskumendunak, kautela-neurri gisa, arriskutsutzat hartu daitekeen edozein txakur atxiki, eta aurreikusitako harrera-zentrora eramango du, baldin eta jabeak ez baditu betetzen ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuan ezarritako neurriak.

39. artikulua.- Zehatzeko eskumena

1.- Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza eta Arrantza Saila izango da eskumenduna, hezteko gaitasun-agiriari lotutako arau-hausteen, zein hezitzaileak prestatzeko ikastaroen homologazioaren kasuan.

2.- Gainontzeko arau-hausteei dagokienez, alkatetza-udalburutza izango da eskumenduna. Aldiz, lurralde-eremua gainditzen badu, eskumena Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza eta Arrantza Sailarena izango da.

IV. KAPITULUA.- OSASUN-ANTOLAMENDUA

40. artikulua.- Arau-haustek

Animalia batek eraso egin, eta udal agintaritza eskumendunari ez bazaio errekerimendua egiten animalia hori al baitari ofizial edota gaitutako al baitari baten behaketa pean jartzeko, hori Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 36.2 b) 1 artikuluaen aurkako arau-haustea izango da. Artikulu horren aurkako arau-haustea izango da, era berean, finkatutako kautela-neurriak ez betetzea.

41. artikulua- Zehapenak

Aurreko artikuluan adierazitako arau-haustek 3.005,06 eta 15.025,30 euro arteko isuna izango dute; zenbatekoa zehaztuko da ekainaren 26ko 8/97 Legearen 37.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

42. artikulua.- Zehatzeko eskumena

Alkatetza-udalburutza izango da zehapenak ezartzeko organo eskuduna. Aldiz, lurralde-eremua gainditzen badu, eskumena Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza eta Arrantza Sailarena izango da.

V. KAPITULUA.- ORDENANTZARI ARAU-HAUSTEAK

43. artikulua.- Arau-haustek

Arau-hauste arinak dira:

- a) Animalien gorotzak uztea bide eta plaza publikoetan, haurren parkeetan, lorategietan eta, oro har, jendea egon edo igaro den edozein eremutan.
- b) Etxe-abereek txiza egitea haurrek erabili ohi dituzten parke eta lorategietan.
- c) Bide publikoetan edo orubeetan elikagaiak ematea hegaztiei, txakurrei edota kaleko animaliei, horretarako berariazko baimenik izan gabe.

44. artikulua- Zehapenak

Aurreko artikuluan tipifikatutako arau-hausteei, isun hauek aplikatuko zaizkie, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen arabera, eta Toki Administrazioa Eraberritzeko Neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legea osagarri hartuta:

Arau-hauste arinak: 750,00 eurora arte.

45. artikulua.- Zehatzeko eskumena

Alkatetza-udalburutza izango da zehapenak ezartzeko organo eskuduna.

VI. KAPITULUA.- ZEHAPEN-PROZEDURA

46. artikulua.- Prozedura

Titulu honetan jasotako arau-hauste guztietarako zehapen-prozedurak, bat egingo du Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusitako zehatzeko ahalmenaren printzipioekin. Era berean, adierazitako xedapen bakoitza zein arautatik datorren, bi hauetako bat aplikatuko da: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioen Zigortzeko Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legea, ala Zehatzeko Ahalmena egikaritzeko Araudia onartzeko abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretua.

47. artikulua.- Prozesu judizialekin elkartzea

1.- Instrukziogileak, prozeduraren edozein unetan, joko balu instrukzioaren xede diren egintzak zigor-arloko ez-zilegi izan daitezkeela, horiei buruz ebazteko eskumena duen organoari jakinaraziko dio. Organo horrek bat egiten badu instrukziogileak adierazitakoarekin, egintza horien berri emango dio Ministerio Fiskalari, eta galdetuko dio ea jakinarazpenaren harira zein jarduketa egin diren.

Era berean, administrazio-prozeduraren xede diren egitatei buruzko zigor-prozedura martxan dagoela jakiten bada, Ministerio Fiskalari eskatuko zaio prozedura horri lotuta egindako jarduketan berri emateko.

Azkenik, informazio bera eskatuko da, administrazio-prozeduraren xede diren egitateen emaitza edo ondoriozko egitateen gainean zigor-prozedura bat dagoenean martxan.

2.- Ministerio Fiskalaren jakinarazpena jaso eta gero, zehapen-prozedura ebazteko organo eskumendunak berau etetea xedatuko du, ebazpen judizial irmoa ematen den arte.

3.- Zehapen-prozedura administratiboa eteteak ez du eragotziko hartutako kautela-neurriak mantentzea, baldin eta zigor-prozesuan ezarritakoekin bateragarriak badira. Bateragarriak ez direla joko da, baldin eta zigor-arloko kautela-neurriak aski badira zehapen-prozedura administratiboan aurreikusitako kautelazko xedeak lortzeko. Ministerio Fiskalari, kautela-neurriak mantendu edota ezartzeko egintzaren berri eman beharko zaio.

4.- Edozelan ere, ebazpen judizial irmo bidez frogatutzat emandako egitateak lotesleak dira administrazio-organoentzat, abiarazitako zehapen-prozedurei dagokienez.

Administrazioak ofizioz berrikusiko ditu zigor-arloko ebazpenean frogatutzat jotako egitateekin kontraesanen dauden egitateetan oinarritutako ebazpen administratiboak, prozedurak ofizioz errebisatzeari buruzko arauekin bat etorrita.

48. artikulua.- Preskribatzea

1.- Ordenantza honetan aurreikusitako arau-hauste arinak lau hilabetera preskribatuko dira; urtebetera, berriz, arau-hauste larriak; azkenik, arau-hauste oso larriak, bi urtera preskribatuko dira.

2.- Arau-hausteen preskripzio-epea, horiek egin diren egunetik hasita zenbatuko da.

3.- Arau-hausteak bost urteren buruan preskribatuko dira 3.005,06 eurotik gorakoak badira; hortik beherakoak, urtebetera preskribatuko dira.

4.- Zigorrak preskribatzeko epea zenbatzen hasiko da zehapena ezarri duen erabakia irmo bihurtu den egunaren biharamunean.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Bakarra.- Indargabetu egiten da animaliak edukitzeari eta babesteari, eta arriskutsuak izan daitezkeen animalien erregimen juridikoari buruzko indarreko Udal Ordenantza, bai eta Ordenantza honen aurkakoak diren araudi zein udal-bando guztiak ere.

I. ERANSKINA

Jarraian aipatutakoak, arriskutsuak izan daitezkeen txakur gisa katalogatuak izango dira, 50/1999 Legea garatzeko martxoaren 22ko 287/2002 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera:

- Zortzi arraza hauetakoak, eta haiekin gurutzatutakoak:

- a) Pit Bull Terrierra.
- b) Staffordshire Bull Terrierra.
- c) American Staffordshire Terrierra.
- d) Rottweillerra.
- e) Dobatxakur argentinarra.
- f) Brasildar fila.
- g) Tosa Inu.
- h) Akitu Inu.

Dena dela, Eranskin hau egokitu egingo zaio Estatuko edota autonomia erkidegoko araudian arriskutsuak izan daitezkeen arrazak erregulatzeko dituen araudian eman daitezkeen edozein aldaketari, Udal Ordenantza hau aldatzeko beharrik gabe.
